



K1 EKOPAISAI, SLL HIZKUNTZA-POLITIKA

AURKIBIDEA

- ◆ SARRERA..... 1. Orr.
- ◆ ARAUTZEKO ARLOAK..... 2. Orr.
- ◆ IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA..... 3-4. Orr.
- ◆ KANPO HARREMANAK..... 5-6. Orr.
- ◆ BARNE HARREMANAK..... 7-8. Orr.
- ◆ HIZKUNTZA KUDEAKETA..... 9. Orr.

SARRERA



K1 EKOPAISAIA sorreratik etengabe aritu da euskararen normalizazio prozesuan bidea egiten. Hizkuntzen erabilerarako irizpideak modu naturalean landu izan dira betidanik. Modu naturalean egindako bide hori bermatu eta hizkuntza-normalizazioaren bidean aurrerapausoak emateko idatzi da K1 EKOPAISAIAko hizkuntza-politika.

Esku artean duzun eskuliburu hau hizkuntzen erabilera zehazteko eta arautzeko neurri edo irizpide multzoa da.

K1 EKOPAISAIAko hizkuntza-politika estuki lotua dago gure misioarekin:

Azpeitia, eskualdea nahiz lurraldeari zerbitzua eskaintzeko enpresa izanik, bertako erakunde, enpresa nahiz bezeroei egokitutako eskaintza bermatuko da. Ildo horretatik, euskara izango da enpresa jarduerako hizkuntza nagusia.

Ondoren jasotako arauak, batetik, praktikan erabiltzen ditugun hainbat hizkuntza-irizpide sendotuko ditu, eta, bestetik, egoera berriei egokitzeko bide-erakusle izango da.

ARAUTZEKO ARLOAK



Arautzeko arloak definitzerakoan, Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) oinarritutako sailkapena jarraitu da:

Irudia eta komunikazioa	Kanpo harremanak	Barne harremanak	Hizkuntza kudeaketa
<ul style="list-style-type: none">•Hizkuntza-paisaia eta irudi korporatiboa•Harrera	<ul style="list-style-type: none">•Bezeroak•Zerbitzua•Hornitzaileak•Finantza-entitateak•Administrazioa•Bestelako kanpo harremanak	<ul style="list-style-type: none">•Lanari lotutako hizkuntza-paisaia•Pertsonen kudeaketa /GGBB•Laneko prestakuntza•Baliabide informatikoak•Komunikazio horizontala eta bertikala•Kudeaketa-sistema•Estrategia/kudeaketa orokorra	<ul style="list-style-type: none">•Hizkuntza-politika•Pertsonak•Baliabideak

Beraz, lau ardatz orokor hauek arautuko dira:

- 1- Irudia eta komunikazioa
- 2- Kanpo harremanak
- 3- Barne harremanak
- 4- Hizkuntza kudeaketa

1-IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA



1.1 HIZKUNTZA-PAISAIA ETA IRUDI KORPORATIBOA

- 1.1.1. Errotulazioa
- 1.1.2. Papeleria-zigiluak
- 1.1.3. Webgunea eta sare sozialak
- 1.1.4. Marketin eta publizitatea
- 1.1.5. Irudi korporatiboa

1.2 HARRERA

- 1.2.1 Aurrez aurre eta telefonoz
- 1.2.2 Erantzungailua

1.1 HIZKUNTZA-PAISAIA ETA IRUDI KORPORATIBOA

1.1.1 Errotulazioa

K1 EKOPAISAIAko **bulegoetako errotulazioa euskaraz** egingo da.

1.1.2 Papeleria-zigiluak

Aurkezpen-txartel, orri-buru, gutun-azal, zigilu eta antzekoak, euskara hutsean erabiliko dira.



1.1.3 Webgunea eta sare sozialak

Webgunearen atari nagusiari eta hurrenez hurreneko pantaileri dagokienez, erabiltzaileari hiru hizkuntza hautatzeko aukera eskainiko zaio euskara lehenetsiz. Webguneko edukiak (txosten, albiste eta atalak) ere hiru hizkuntzatan eskuratzeko aukera ziurtatuko da. Horrez gain, sare sozialetan argitaratutakoak (Facebook, adibidez) euskara hutsean edo ele bietan izango dira.

1.1.4 Marketin eta publizitatea

K1 EKOPAISAIK iragarki eta prentsa argitalpenak euskaraz egingo ditu. Sustapen material, katalogo eta abarretan, bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, betiere, euskarari lehentasuna emanda.

1.1.5. Irudi korporatiboa

Logotipoa euskara hutsean dagoenez, horixe da erabiliko dena.

1.2 HARRERA

1.2.1 Aurrez aurre eta telefonoz

K1 EKOPAISAIK langilea, aurrez aurre nahiz telefonoz, euskaraz zuzenduko zaio hartzaileari, eta gero hartzaileak hautatutako hizkuntza ofizialean jarraituko du.

1.2.2 Erantzungailua

Erantzungailuari dagokionez, 2 hizkuntza ofizialak erabiliko dira euskarari lehentasuna emanaz.

2-KANPO HARREMANAK



2.1 BEZEROAK

- 2.1.1. Idatzizko harremana erakunde publikoekin
- 2.1.2. Ahozko harremana erakunde publikoekin
- 2.1.3. Idatzizko harremana erakunde pribatuekin
- 2.1.4. Ahozko harremana erakunde pribatuekin

2.2 HORNITZAILEAK

- 2.2.1. Idatzizko harremana
- 2.2.2. Ahozko harremana

2.1 BEZEROAK

K1 EKOPAISAIAan bi bezero mota bereizten ditugu: publikoak eta pribatuak. Hori dela eta, horrela jokatuko dugu:

Erakunde publikoak

2.1.1. Ahozko harremana: Euskara ofiziala den lurraldeetako erakunde publikoetan, K1 EKOPAISAIAko langilea euskaraz zuzenduko zaio solaskideari, eta gero, solaskideak hautatutako hizkuntza ofizialean jarraituko du.

2.1.2. Idatzizko harremana: Euskara ofiziala den lurraldeetako erakunde publikoei zuzendu beharreko idatziak, euskara hutsean bidaliko dira.



Euskara hizkuntza ofiziala den lurraldeetako erakunde publikoetatik jasotzen diren idatziak gaztelania hutsean baleude, K1 EKOPAISAIK euskaraz jasotzeko eskaria egin beharko luke.

Erakunde pribatuak

2.1.3. Ahozko harremana: Euskara ofiziala den lurraldeetako erakunde pribatuetan, K1 EKOPAISAIK langilea, aurrez aurre nahiz telefonoz, euskaraz zuzenduko zaio solaskideari, eta gero solaskideak hautatutako hizkuntza ofizialean jarraituko du.

2.1.4. Idatzizko harremana: Euskara ofiziala den lurraldeetako erakunde pribatuetan, K1 EKOPAISAIK erakunde pribatuei jakinaraziko die euskararen normalizaziorako plangintza bat duela, eta ondorioz, euskararen erabilera bultzatzea duela helburu; beraz, aurrerantzean kanpo nahiz barruko harremanetan, euskarari lehentasuna ematea erabaki dutela. Hori dela eta, erakunde pribatuek euskaraz jarduteko aukera ematen dutenean, idatzizko komunikazioak euskara hutsean izango dira. (Dena den, hartzaileak hala eskatuko balu, eskubidea du idatziak hautatutako hizkuntza ofizialean eskuratzeko).

2.2 HORNITZAILEAK

2.2.1. Idatzizko harremana: K1 EKOPAISAIK euskara hizkuntza ofiziala den lurraldeko hornitzaileei jakinaraziko die euskararen normalizaziorako plangintza bat duela, eta ondorioz, euskararen erabilera bultzatzea duela helburu; beraz, hornitzaileengandik jaso beharreko idatzi eta agiriak euskaraz bidaltzeko eskatuko du K1 EKOPAISAIK.

2.2.2. Ahozko harremana: K1 EKOPAISAIK langilea, euskara hizkuntza ofiziala den lurraldeko hornitzaileei aurrez aurre nahiz telefonoz, euskaraz zuzenduko zaio, eta gero solaskideak hautatutako hizkuntza ofizialean jarraituko du.

3-BARNE HARREMANAK



3.1 LANARI LOTUTAKO HIZKUNTZA-PAISAIA

3.2 PERTSONEN KUDEAKETA / GGBB

- 3.2.1. Pertsonen administrazioa
- 3.2.2. Informazioa/ komunikazioa
- 3.2.3. Pertsonen kudeaketa

3.3 LANEKO PRESTAKUNTZA

3.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK

3.5 KOMUNIKAZIO HORIZONTALA ETA BERTIKALA

3.6 KUDEAKETA-SISTEMA

- 3.6.1. Prozesuak/prozedurak/kalitatea
- 3.6.2. Lan-arriskuen prebentzioa

3.7 ESTRATEGIA/KUDEAKETA OROKORRA

- 3.7.1. Antolaketa eta estrategia
 - 3.7.2. Kudeaketa ekonomiko finantzarioa
-



3.1 LANARI LOTUTAKO HIZKUNTZA-PAISAIA: K1 EKOPAISAIAko bulegoetako errotulazio txikia, hau da, karpetak, fitxategiak, apalak, etab. euskaraz egingo dira. Salbuespen bakarra produktuen kodeak izango dira.

3.2 PERTSONEN KUDEAKETA / GGBB

3.2.1 Pertsonen administrazioa: K1 EKOPAISAIAk pertsonen administraziorako erabiltzen eta banatzen dituen idatzi estandarizatu (nominak, egiaztagiriak, ordutegi-kontrolak) eta inprimakiak (lizentzia-baimenak, bidaia eta otordu-ordainketak) euskaraz egingo ditu.

3.2.2 Informazioa/ komunikazioa: Langileei helarazten zaizkien jakinarazpenak euskaraz egingo dira.

3.2.3 Pertsonen kudeaketa: Langile etorri berrientzako harrera, barne arautegia eta lege-dokumentuak (kontratuak, hitzarmenak, Gizarte Segurantzaren edo Ogasunari dagozkion dokumentuak) euskaraz emango dira. Gainera, langile etorri berriei K1 EKOPAISAIAko Hizkuntza politikari buruzko informazioa emango zaie.

3.3 LANEKO PRESTAKUNTZA

K1 EKOPAISAIAko langileei zuzendutako ikastaro, hitzaldi, idatzizko material, fitxategi digital, internet bidezko heziketa eta langileen prestakuntza helburu duten bestelako ekintza, komunikazio euskarri edota materialetan euskararen erabilera lehenetsiko da.

K1 EKOPAISAIAAn egitekoa izango da bertako langileen prestakuntza euskaraz izango dela bermatzeko ahalegina egitea. Horretarako, prestakuntza euskaraz jasotzeko aukerarik dagoen aztertu, eta hala denean, eskaria bideratuko du.



3.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK

K1 EKOPAISAIAko langileek erabili beharreko aplikazio informatikoak instalatzerakoan, K1 EKOPAISAIAren egitekoa izango da euskarazko bertsiorik dagoen aztertzea, eta hala denean, euskarazkoen aldeko hautua egingo du.

3.5 KOMUNIKAZIO HORIZONTALA ETA BERTIKALA

K1 EKOPAISAIAko langileen arteko bilerak, eta bertan erabiliko diren idatzizko euskarriak euskara hutsean izango dira.

3.6 KUDEAKETA-SISTEMA

3.6.1 Prozesuak / prozedurak / kalitatea: K1 EKOPAISAIAren egitekoa izango da zerbitzua euskaraz eskaintzeko aukerarik dagoen aztertzea, eta hala balitz, eskaera bideratuko da.

3.6.2 Lan-arriskuen prebentzioa: K1 EKOPAISAIAren egitekoa izango da zerbitzua euskaraz eskaintzeko aukerarik dagoen aztertzea, eta hala balitz, eskaera bideratuko da.

3.7 ESTRATEGIA / KUDEAKETA OROKORRA

3.7.1 Antolaketa eta estrategia: Kudeaketa planak euskara hutsean idatziko dira.

3.7.2 Kudeaketa ekonomiko finantzarioa: Ikuskaritzei dagokienez, K1 EKOPAISAIAren egitekoa izango da zerbitzua euskaraz eskaintzeko aukerarik dagoen aztertzea, eta hala balitz, eskaera bideratuko da.

4-HIZKUNTZA KUDEAKETA



K1 EKOPAISAIK hizkuntza-jarraibideak eskuliburu honetan jaso ditu. Urtez urte euskararen normalizazio-prozesuan aurrera egiteko tresna eraginkorra izatea da liburuxka honen helburua. Bertan jasotako edukiak K1 EKOPAISAIKko langile guztiei eta gainerako interes-talde adierazgarrienei emango zaizkie ezagutzera, beharrezkoa den komunikazio plana garatuz.

Hizkuntza politika benetan eraginkorra izan dadin, jarraipen sistematikoa egingo zaio. Horretarako, beharrezkoak diren baliabide pertsonal zein materialak baliatuko ditu K1 EKOPAISAIK:

BALIABIDE PERTSONALAK

- **Jarraipen Batzordea:**
 - **Egitura:** Erabaki ahalmena duen kideren bat eta langileen ordezkariak
 - **Eginkizunak:**
 - Detektatutako desbiderapenak jasotzea
 - Neurri zuzentzaileak adostea
 - Neurri zuzentzaileak ezartzea
 - Hizkuntza-politikaren betetze-mailaren jarraipena egitea

BALIABIDE MATERIALAK

- Desbiderapenak jasotzeko fitxak
- Adierazleen neurketarako tresna
- Elegunek eskainitako zerbitzuak

MAIZTASUNA:



Jarraipen batzordeak urtean bitan egingo du desbiderapenen jarraipena. Adierazleen neurketa, berriz, urtean behin egingo du, urte amaieran, hain zuzen ere.

Horrela bada, K1 EKOPAISAIAko hizkuntza politika, hizkuntzen erabilera zehazteko eta arautzeko irizpide-multzoa, **guztiona eta guztiontzat sortutako gidaliburua da**. K1 EKOPAISAIA osatzen dugun guztion erantzukizuna da prozesua geurea egitea eta antzematen ditugun desbiderapenak detektatzea eta jakitera ematea. Horrela soilik lortuko dugu euskarak behar duen bultzada eta babes instituzionala izatea.